

I. XEDAPEN OROKORRAK**ESTATUKO BURUZAGITZA**

11073 46/2015 Legea, urriaren 14koa, Karrera Militarri buruzko azaroaren 19ko 39/2007 Legea aldatzen duena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.

Jakizue: Gorte Nagusiek honako lege hau onetsi dutela eta nik berretsi egiten dudala:

HITZAURREA

Indar Armatueta Kideen Eskubideen eta Betebeharren uztailaren 27ko 9/2011 Lege Organikoaren azken xedapenetatik hamabigarrenak xedatutakoaren arabera, Gobernuak sei hilabeteko epea izango du, legea indarrean jartzen denetik, Karrera Militarriaren Legearen araubide iragankorra erreformatzeko lege proiektua —lege horren aplikazioaren ondoriozko esperientzia aintzat hartuko baitu— Diputatuen Kongresura bidaltzeko, eta horretarako legearen aldi iragankorreko elementuak jasoko dituen txostena eman beharko du, aurretik, Diputatuen Kongresuko Defentsa Batzordeak, hain zuzen, honakoei eragiten dieten elementuak jasoko dituen: sustapen eta eskala-aldaketak, maila-igoeren araubidea, antzinakotasuna, erreserba-egoerara pasatzea eta lortutako prestakuntzaren balioespen akademikoa, bai eta langile desgaituen erretiroa —hala dagokionean, horren ondorio ekonomikoak aintzat harturik—.

Defentsa Batzordeak, 2014ko uztailaren 9ko bilkuran, Karrera Militarri buruzko azaroaren 19ko 39/2007 Legearen araubide iragankorra erreformatzeko azpibatzaordearen txostena onetsi zuen; txosten horretan legegilearen agintzeko ahalmena mugatu ondoren, egindako proposamenen analisia jaso zen, txostenean bertan jasotzen ziren gaiak eta Karrera Militarri buruzko Legeak berak jasotzen dituen beste gai batzuei dagokienez. Análisi horren amaiera gisa lege aldaketa honetan jasota gelditu diren hainbat proposamen egin zen, beraz, uztailaren 27ko 9/2011 Lege Organikoak xedatzen zuena bete egin da.

Erreforma honen bidez, honako aldaketa hauek egiten dira: inguruabar bereziak direla eta erretiro egoerara pasatzen diren militarren benetako lotura definitzen da, haien borondatez gelditzen baitira Indar Armatuak atxikiak, eta ohorezko maila-igoerak lortu ahal izatea ahalbidetzen zaie; Karrera Militarri buruzko Legearen hamargarren xedapen gehigarriak xedatutakoari bildu ezin izan ziren erretiratutako ofizialordeei enplegua ematea arautzen da; erreserba egoerara pasatzean, igoerarako bete behar diren baldintzak aldatzen dira; hainbat kidego eta eskalatan 58 urte betetzean erreserba egoerara norberaren borondatez pasatu ahal izateko, militarrek hogeita hamahiru urteko zerbitzuak — Indar Armatueta sartu zenetik— egiaztatu behar dituzte, eta baldintza hori betetzeko epea bi urtez luzatzen da; militar osagarriak iraunkorrak izatera pasa daitezkeen erraztuko da eta erreserba egoeratik pasa gabe erretiro egoerara zuzenean pasa zirenei ohorezko enplegua ematea ezartzen da, betiere, erretiroa pasa zirenean zerbitzuan hogeitau urte — militar profesionalaren izaera eskuratu zutenetik— emanak zituztela egiaztatu bazuten, eta, edozein kasutan, zerbitzu-egintzaren ondorioz pasa baziren.

Gainera, Karrera Militarri buruzko Legea indarrean jarri zenetik zazpi urte baino gehiago pasa direnean, egokitzen jotzen da hainbat arazo argitu edo zehaztea, esperientziak nahiko definituta ez daudela erakutsi baitu. Era horretan, honako hauekin loturiko alderdiak zehazten dira: prestakuntza-zentroetan izandako bajak errekupeatzea; merezimenduen balorazioa sustapen-prozeduretan; espezializatze beharra hainbat enplegu abiapuntu hartuta; ebaluazioekin eta zereginen etete-egoerara pasatzeko

prozedurekin, edo inguruabar bereziak direla-eta destinoak eta zerbitzu-eginkizunak hornitzearekin zerikusia duten alderdiak erregelamendu bidez arautzeko beharra; baldintza psikofisikoekin zerikusia duten espedientei loturiko errekurtsioak ebazteko irizpideak bateratzea; baja-aldiak zenbatzeko sistema; tropako eta itsas armadako militar izaera eskuratzeko unea; militarrek berariazko osagarriaren zenbatekoa murrizteko eskatu ahal izateko aukera, Administrazio Publikoetako Langileen Bateriaezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legearen ondorioetarako.

Artikulu bakarra. *Karrera Militarrari buruzko 39/2007 Legea, azaroaren 19koa, aldatzea.*

Karrera Militarrari buruzko 39/2007 Legea, azaroaren 19koa, honela aldatzen da:

Bat. 24. artikulua 1. eta 2. zenbakiak honela geratzen dira idatzita:

«1. Ministro Kontseiluak, salbuespenezko merezimenduak edo inguruabar bereziak tartean direlako, eta Defentsako ministroak hala proposatuta, goiko hurrengo enplegua —ohorezko izaeraz— eman ahalko die erretiro-egoerara igaro diren edo beren konpromisoa amaitutzat eman duten militarrei. Ohorezko enpleguak hil ostean ere eman daitezke.

2. Defentsako Estatu Nagusiaren buruari edo Lehor-armadako, Armadako edo Aireko-armadako Estatu Nagusiaren buruei dagokie ohorezko enpleguak emateko ekimena, eta horretarako merezimenduak eta elkartzen diren inguruabarrak arrazoitu beharko dituzte. Espediente horiek izapidetzeko orduan, dagokion armadaren Kontseilu Nagusiak emandako txostena batu egingo da espedientera.

Ohorezko goiko hurrengo enplegua emateko espedientea abiaraziko da, beti, zerbitzu-egintzan hil diren militarrei edo ezintasun iraunkorragatik —zerbitzu-egintzan edo haren ondorioz gertatua bada— erretiratu edo konpromisoari amaiera ematen dietenei emateko. Enplegu hori ez emateko arrazoitutako proposamena egon bada, berriz, Defentsako ministroak hura Ministroen Kontseiluari bidaltzea aztertuko du.»

Bi. 24 bis artikulua gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«24 bis artikulua. *Indar Armatuekiko ohorezko lotura.*

1. Erretiro egoerara pasatzeko edo zerbitzu egintzan edo horren ondorioz zerbitzurako ezintasun iraunkorraren egoerara pasatzeko izandako arrazoi bereziak aintzat harturik, militarra Indar Armatuei loturik geratu ahalko da, ohorezko izaeraz.

2. Defentsako ministroaren aginduz zehaztuko dira aurreko zenbakian aipatutako arrazoi berezi horiek.

3. Ohorezko loturak harekin dakar interesduna zehazten den unitateari atxikitzea, eta hala dagokionean, ohorezko beste enplegu batzuk —Defentsako ministroaren aginduz ezartzen diren muga eta baldintzekin bat— eskuratu ahal izatea, betiere, atxikia dagoen unitatean izan duen parte-hartze eta lankidetzat aintzat harturik.

4. Defentsako ministroak ematen du ohorezko lotura, baina interesdunak eskatu beharko du 1. zenbakian zehaztutako baldintzak betetzen baditu. Lege honen 24. artikulua xedatutakoarekin bat emango da ohorezko lehenengo enplegua, ondorengoak, berriz, Defentsako ministroak emango ditu, Defentsako Estatu Nagusiaren buruaren edo Lehor-armadako, Armadako edo Aireko-armadako Estatu Nagusiaren buruen ekimenez, haien eskumeneren eremuaren barruan, eta dagokion armadako Kontseilu Nagusiak txostena eman ondoren.

5. Enplegu horiek emateak ez du ondorio ekonomikorik izango, ez eta interesdunak erretirodun gisak jasotzen duen pentsioaren aldaketarik ekarriko ere.»

Hiru. 56. artikulua 2. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«2. Hautaketa-organoek ezingo dute proposatu hautagai kopuru handiagoa deitutako plaza kopuruena baino militarrentzako prestakuntza-ikastetxeetan sartzeko. Hala ere, zentro horietako ikasle izateko hautatutako hautagaiek, zentroan sartu aurretik edo, hala dagokionean, deialdian ezartzen den bizitza militarrentzako orientazio- eta egokitzapen-aldia amaitu aurretik, uko egiten badiote aurrera jarraitzeari, deialdia egin duen organoak ikasle izateko proposatutako ondoren zeuden hautagaien zerrenda osagarria eskatu ahalko dio hautaketa-organoari. Aurreko lerokadan ezarritakoari jarraituz, dagozkion militarrentzako prestakuntza-ikastetxeetan sartzeko data heltzean, iraungi egingo da hautaketa-prozesuaren ondoriozko beste edozein eskubide.»

Lau. 62. artikulua 1. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«1. Eskutatuko baldintzak betetzen dituzten militar profesionalei eskala aldatzea edo, hala dagokionean, kidegoa aldatzea ahalbidetzen dieten sustapen-prozesuak bultzatu eta erraztuko ditu Defentsa Ministerioak. Prozesu horietan, merezimenduak balioetsiko dira, zerbitzuan emandako denbora barne, sartzeko plazak erreserbatuko dira eta, hala dagokionean, hezkuntza sistema orokorreko titulazioa eskuratzea erraztuko da. Halaber, lanbide-esperientziaren eta prestakuntzaren balioespen efektiboa egingo da, zeina dagozkion tituluak, baliozkotzeen eta balioztatzeen edo kredituen bidez ziurtatu beharko baitira. Prozesu horiek urrutiko irakaskuntza faseen bidez burutu ahalko dira.»

Bost. Legearen 75. artikulua 1. zenbakiari laugarren lerokada gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«Especialitate horiek lortzeko prestakuntza- eta eskuratze-sistema erregelamendu bidez ezarriko da, eta Indar Armatuak kideen merezimenduak eta ibilbidea aintzat hartuko dituen karreraren garapena ahalbidetu beharko du.»

Sei. Legearen 92. artikulua 4. zenbakia gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Igoera ebaluatuko duten organoek igoera emango duen agintaritzari ebaluatutako prozesu-egoeraren berri emateko beharrezko diren neurriak erregelamendu bidez ezarriko dira.»

Zazpi. Legearen 101. artikulua 3. bis, 7. eta 8. zenbakiak gehitzen zaizkio, eta honela geratzen dira idatzita:

«3 bis. Behin falta oso astunagatik diziplina-prozedura abiaraztea erabaki edo delituagatik salaketa izapidetzea onartu ondoren, sexu-jazarpen, -abuse edo -erasoaren biktima izan denak zerbitzu eginkizuna eskatzeko eskubidea izango du, hain zuzen, gertaerak izan ziren unitatea edo tokia ez den beste batean.»

«7. Destinoak hornitzeko arau orokorren barruan aldi baterako izendapena jaso ahalko da inguruabar bereziak ematen diren kasuetarako, besteak beste, militarren norberaren bizitza, familia eta lana bateragarri egitearekin loturikoak edo militarren beraren edo haren senitartekoaren osasun, desgaitasun edo mendekotasun arrazoiekin loturikoak. Destino horiek aurretik plaza hutsa dagoela argitaratu behar izan gabe esleitu daitezke, erregelamendu bidez zehaztutako baldintza eta mugak aintzat harturik.»

8. Terrorismoaren Biktimak Aitortu eta Osorik Babesteko irailaren 22ko 29/2011 Legeak xedatutakoarekin bat, terrorismoaren biktimatza hartu diren militarrek eskubidea dute beste destino baten esleipendunak izateko, betiere, erregelamendu bidez zehaztutako baldintzekin bat.»

Zortzi. Legearen 111. artikuluari, 2. zenbakiaren lehenengo eta bigarren lerrokaden artean, lerrokada bat gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«Eginkizun-etenaldiaren egoerara pasatzeko prozedurak presaz noiz izapidetu zehazteko beharrezko neurriak erregelamendu bidez ezarriko dira.»

Bederatzi. Aldatu egiten da 39/2007 Legearen 120. artikulua 1. zenbakia, bigarren lerrokada, eta honela geratzen da idatzita:

«Ebaluazio-organo batek —armada bakoitzean dagokiona— balioetsiko du espedientea, zeinetan mediku eskumendunaren txostena egongo baita, eta Defentsako ministroari bidaliko zaio, horrek dagokion ebazpena eman dezan.»

Hamar. Legearen 121. artikulua 4. zenbakia 5.a izatera pasatzen da eta 4. zenbaki berria gehitzen zaio; honela geratzen da idatzita:

«4. Berriz gaixotzekoaldiak zenbatu egingo dira artikulua honetako 2. eta 3. zenbakien ondorioetarako; berriz gaixotzea gertatu dela ulertuko da militarrek sei hilabete baino gutxiagoko epean berriro baja bada zerbitzuan prozesu patologiko beraren ondorioz, eta kasua hori denean, ez da aldi baterako gutxiegitasun-aldi berri bat abiaraziko.

5. (...)

Hamaika. Bigarren lerrokada gehitzen zaio hamargarren xedapen gehigarriaren 4. zenbakiari, eta honela geratzen da idatzita:

«Ezintasun iraunkorragatik erretiroan dauden eta zerbitzu aktiboan edo erreserban daudelako berrantolaketa honen barruan dauden ofizialordeen kidegoko ofizialordeek eskala horietara heltzeko gaitasun-ikastaroan eskuratu zutenaren hurrengoari edo dena delako mailan hurrengo denari dagozkion enplegu eta antzintasuna eskatu ahaliko dute, betiere, berrantolaketaren ondorengo enpleguei dagozkien antzintasunaren data-mugak eskatzaileek erretiro-egoerara pasa ziren daten aurrekoak badira, eta enplegua eta antzintasuna ezingo dira inolaz ere izan ukituak 61 urte bete ondorengokoa.»

Hamabi. Hamabigarren xedapen gehigarria gehitzen da, eta honela geratzen da idatzita:

«Hamabigarren xedapen gehigarria. *Ordainsariari dagokionez, A1, A2, C1 eta C2 azpitaldeetako baten baliokide den enplegua duten langile militarrek, norberak hala eskatuta, berriazko osagarriaren murrizketa eskatu ahaliko dute.*

1. Ordainsariari dagokionez, A1, A2, C1 eta C2 azpitaldeetako baten baliokide den enplegua duten langile militarrek —Langile Militarren Bateriaezintasun Araubidearen otsailaren 21eko 517/1986 Errege Dekretuaren aplikazio eremuaren barrukoek— betetzen duten lanpostuari dagokion berriazko osagarriaren zenbatekoa murrizteko eskatu ahaliko dute Administrazio Publikoetako Langileen Bateriaezintasunen abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 16.4 artikulua xedatzen duen ehunekora egokitzeko. Eskaera hori armadetako agintarien edo langileen buruzagitzaren aurrean egin beharko dute, armaden egituratik aparteko destinoa dutenek, berriz, Defentsa Ministerioaren Langileen Zuzendaritza Nagusiaren aurrean; Guardia Zibilaren kasuan, Guardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusiaren Langileen Azpizuzendaritza Nagusiaren aurrean egin beharko da eskaera.

2. Aukera horretatik kanpo gelditzen dira, gobernu-kideen eta Estatuaren Administrazio Orokorreko goi-mailako karguen kabineteetan aritzen diren eta, ordainsariari dagokionez, A1 eta A2 azpitaldeetako baten baliokide den enplegua duten langile militarrek, bai eta 30 zein 29 lanpostu-mailako osagarria esleituta duten lanpostuetan aritzen direnak ere.»

Hamahiru. Bosgarren xedapen iragankorraren 7. zenbakiari laugarren lerrokada gehitzen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«Indar Armatuaren behar bereziak aztertu ondoren, militar osagarrien jarraipena errazteko behar diren plazak hornituko ditu Gobernuak.»

Hamalau. Aldatu egiten da seigarren xedapen iragankorra, eta honela geratzen da idatzita:

«Seigarren xedapen iragankorra. *Maila-igoerak erreserban.*

Honako lege hau indarrean jartzen den momentutik erreserba-egoerara pasatzen diren teniente koronel, komandante eta kapitainek koronel, teniente koronel edo komandante enplegua, hurrenez hurren, eskuratu ahalko dute eskatzen badute, koronel enplegua dagoen eskala batekoak badira, maila-igoerarako muga legalik ez badute eta 2019ko ekainaren 30 baino lehen hamar urte —erreserban emandako denbora barne— bete badituzte haien enpleguan. Erreserban aitortuko zaie, horretarako baldintzak betetzen dituzten egunetik abiatuta, hurrengo uztailaren 1eko ondorioekin.»

Hamabost. Aldatu egiten da zazpigarren xedapen iragankorra, eta honela geratzen da idatzita:

«Zazpigarren xedapen iragankorra. *Ofizialordeen teniente enplegurako maila-igoera.*

1. Sarjentu enplegua 1977ko urtarrilaren 1etik, eta 1999ko maiatzaren 20a baino lehen —17/1999 Legea, maiatzaren 18koa, Indar Armatueta Langileen Araubidearena indarrean jarri zen eguna— lortu duten ofizialordeek, tenienteorde enplegua lortzeko muga legalik ez badute, maiatzaren 18ko 17/1999 Legeak xedatutako ofizialen eskaletako teniente enplegua lortu ahalko dute eskatzen badute; enplegu hori emango zaie lege honekin bat erreserba egoerara pasatu edo pasatuko diren egunean, eta antzintasuna, zerbitzuan emandako denbora eta ondorio ekonomikoak maila-igoeraren egunetik aitortuko zaizkie, ondoren datozen 2. eta 3. zenbakietan xedatutakoari kalte egin gabe.

2. Honako xedapen hau dela-eta teniente enplegura 58 urte baino gehiagorekin igo diren edo igoko diren ofizialordeen kasuan, adin hori bete zuten eguna hartuko da kontuan antzintasuna, zerbitzuan emandako denbora eta ondorio ekonomikoak aitortzeko. Gainera, ofizialorde helduei, erreserba egoerara pasa badira enpleguan sei urte eman dituztelako, 2013ko abuztuaren 1era arte, teniente enplegua emango zaie eta 56 urte bete zuten eguna hartuko da kontuan antzintasuna, zerbitzuan emandako denbora eta ondorio ekonomikoak aitortzeko.

3. Legearen 113.3 artikulua aplikatzearen ondorioz erreserba egoerara pasatu edo pasako diren xedapen honen 1. zenbakian aipatutako ofizialordeek teniente enplegua —maiatzaren 18ko 17/1999 Legeak xedatutako ofizialen eskaletakoa— lortu ahalko dute eskatuz gero, betiere, erreserbara pasatzeko lege honen zortzigarren xedapen iragankorrean edo 113. artikuluen 1. —b letra— eta 4. zenbakietan xedatutakoak betetzen badituzte; ondorio horietarako erreserban emandako denbora zenbatuko da.

4. Maiatzaren 18ko 17/1999 Legea edo honako xedapen hau aplikatzearen ondorioz teniente enplegura igo diren edo igoko diren ofizialordeek, eta erreserba egoeran daudenen mailaren hurrenkera zehaztearen ondorioetarako baino ez, zerbitzu aktiboan lortua zuten enpleguarekin bat dagokien postua beteko dute, bai eta enplegu horretan zuten antzintasuna izan ere.»

Hamasei. Aldatu egiten da zortzigarren xedapen iragankorraren 4. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

«4. 2013ko uztailaren 31ra arte, maiatzaren 18ko 17/1999 Legearen 144.2.b artikulua xedatutako erreserba pasatzeko kasua aplikatuko zaie kidego orokorreko, itsas infanteriakoei eta espezialisten kidegoei; 2009ko uztailaren 1etik aurrera, kidego horietako ofizialen eskaletatik datozen eta eskala berrietan integratu diren teniente koronelei heltzeko zabaldu zen, eta lege honetako 113.6 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie. Berrogeita hamasei urte bete ez dituenak adin hori izan arte itxaron beharko du erreserba egoerara pasatu ahal izateko.

2019ko ekainaren 30era arte, aurreko zenbakian aipatutako langileek, eskala berrietan integratu ez diren ofizialen eskaletatik datozen teniente koronelek eta aipatutako kidegoetako ofizialorde helduek erreserba haien borondatez pasatzeko eskatu ahalko dute, Indar Armatuetan sartu zirenetik hogeita hamahiru urte baino gehiago pasa badira eta berrogeita hamazortzi urte beteak badituzte, eta haiei ere 113.6 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie. Eskaera egiteko momentuan adin hori bete gabe badute, beteko duten dataren ondorioekin emango zaie, nahiz eta zenbaki honen hasieran adierazitako egunaren ondorengoa izan.»

Hamazazpi. Xedapen iragankor bat gehitzen da, hamahirugarrena, eta honela geratzen da idatzita:

«Hamahirugarren xedapen iragankorra. *Erretirodunei ohorezko enplegua ematea.*

1. Honako lege hau indarrean jartzen denetik, bete beharreko baldintza psikofisikoak, zerbitzu-egintzaren ondorioz, betetzen ez dituztelako erretiro egoerara pasatu edo pasako diren teniente koronel, komandante eta kapitainei ohorezko enplegua eman ahalko zaie, koronel, teniente koronel edo komandantearena, hurrenez hurren, koronel enplegua dagoen eskala batekoak badira, maila-igoerarako muga legalik ez badute, eta 2019ko ekainaren 30 baino lehen, hamar urte —zerbitzu aktiboa, erreserba (halakoa denean) eta erretiroa barne— bete badituzte dauden enpleguan; baldintzak betetzen dituen egunetik abiatuta lehen uztailaren 1etik aurrerako antzintasuna aitortuko zaie.

2. Zazpigarren xedapenaren barruan dauden eta bete beharreko baldintza psikofisikoak, zerbitzu-egintzaren ondorioz, betetzen ez dituztelako erretiro egoerara pasatu edo pasako diren ofizialordeei aplikatuko zaie zazpigarren xedapen iragankor horretan adierazitakoa, eta ohorezko teniente enplegua emango zaie; zerbitzu aktiboan jarraitu izan balute erreserba egoerara pasako liratekeen eguna aintzat harturik aitortuko zaie antzintasuna.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren langileak erretiro egoerara pasatu badira bete beharreko baldintza psikofisikoak betetzen ez dituztelako, baina ez zerbitzu-egintzaren ondorioz, maila-igoerarako eskubidea izango dute haiek bezala, baina militar profesional izaera bereganatu zutenetik hogeitazero urteko zerbitzua egiaztatu beharko dute.

4. Ez zaio horrelako enplegu bat emango 24. artikulua aplikatzearen ondorioz, ohorezko alferrez enplegua baino maila goragokoa eman zaion militarari.

5. Interesdunak eskatu beharko du horrelako enplegua eman dakion, eta emateak ez du ondorio ekonomikorik izango, ez eta interesdunak erretirodun gisak jasotzen duen pentsioaren aldaketa ekarriko ere.»

Lehenengo xedapen gehigarria *Hamargarren xedapen gehigarriaren aldaketak ukitutako langileei enplegua esleitzeko eskabidea aurkezteko epea.*

Azaroaren 19ko Legearen hamargarren xedapen gehigarriaren aldaketak ukitutako langileek 6 hilabete —honako lege hau indarrean jartzen denetik— izango dituzte dagozkien enpleguak esle diezazkien eskatzeko.

Bigarren xedapen gehigarria. *Bizitza Militarraren Behatokiaren sustapen-prozesuen inguruko txostena.*

Indar Armatueta kideen eskubideen eta betebeharren uztailaren 27ko 9/2011 Lege Organikoaren 54. artikulua esleitzen dizkion zereginekin bat, Karrera Militarraren azaroaren 19ko 39/2007 Legearen 62. artikulua benetako aplikazioaren emaitzak jasoko ditu Bizitza Militarraren Behatokiak bere urteko txostenean, barne-sustapenaren prozesuen eraginkortasuna balioesteko moduan.

Xedapen iragankor bakarra.

Lege honen hirugarren zenbakian xedatutakoa —azaroaren 19ko 39/2007 Legearen 56. artikulua 2. zenbakia aldatzen baitu— aplikatuko da 2015-2016 ikasturtean.

Azken xedapenetatik lehenengoa *Tropako Militarren eta Marinelen 8/2006 Legea, apirilaren 24koa, aldatzea.*

Tropako Militarren eta Marinelen 8/2006 Legea, apirilaren 24koa, honela aldatzen da:

Bat. Legearen 4. artikulua honela geratzen da idatzita:

«4. artikulua. *Tropako militarren eta marinelen izaera eskuratzea.*

Dagokion armadaren Estatu Nagusiaren buruak ematen duen soldadu edo marinela enplegua lortzearekin batera eskuratzen da tropako militarren eta marinelen izaera, enplegu hori eskuratzeko hautaketa-probetarako deialdian ezarritako prestakuntza-aldia gainditu eta 7. artikuluan ezarritako hasierako konpromisoa izenpetu ondoren, gainera dagokion gizarte segurantzaren erregimenean sartzen da militarra.»

Bi. 7. artikulua 1. zenbakia honela geratzen da idatzita:

«1. Tropako militar eta marinela izaera eskuratzeko hautaketa-proben deialdian ezarritako prestakuntza-aldia gainditu dutenek berehala eta haien borondatez sinatuko dute hasierako konpromisoa. Hasierako konpromisoan beti zehaztu behar dira haren iraupena eta destinoa, bai eta soldadu eta marinelen lan ibilbidearekin loturiko beste inguruabar batzuk ere, edozein kasutan, prestakuntzako zentro militarrean ikasle gisa hasi aurretik izengaei emango zaien informazio orokorra dena.»

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Lege hau *Estatuko Aldizkari Ofizialean* argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau bete eta betearaz dezatela agintzen diet espainiar guztiei, partikular zein agintariei.

Madrilen, 2015eko urriaren 14an.

FELIPE e.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY.